

Shikimikoa

LIKIDANBARRAK (*Liquidambar styraciflua*) anbar likidoa ematen duen bezala, beste gai askoren iturri ere bada. Tartean, bere hazietatik sortzen den azido shikimikoarena. Izen xeble hori japonieratik dator, *shikimi* deitzen dioten izar itxurako anis landare japoniarretik (*Illicium anisatum*); landare horretan aurkitu eta bakartu zuten, lehenengoz, azido hori.

Azido shikimikoa landareen osagai biokimiko garrantzitsua da. Landareen bizitzan beharrezkoa

da, eta aspaldi honetan baita geurean ere. Botika eta gai kimiko askoren aitzindaria da: Tamiflu antibirusa, azido salizilikoa, resberatrola... Adibidez, antibirus horren hamalau pilula kaxa egiteko lau kilo inguru likidanbar hazi behar da. Eskea etengabe hazten ari da eta gero eta landare gehiagotatik sortzen da azidoa: pinuak (*Pinus* sp.), izar itxurako japoniarra ez beste anixak (*Illicium* sp.)...

Landareen barruan azido shikimikoa sortzeko bidea oztopatuz

lan egiten du glifosato belar-hiltzaile ezagunak. Azido gabe landarea hil egingo da. Monsanto etxe beldurgarriak sortu zuen. Ukitzen duen guztia hiltzen du belar-hiltzaileak, baita soroan egin nahi dugun landarea ere. Uztari kalterik egin gabe, glifosatoa lasai erabiltzeko, transgenikoak sortu zituen Monsanto berak. Horrela landarea, soja, artoa edo dena delakoa bertan izanagatik lasai erabil daiteke herbizida, baita dosi aberatsagoan ere. Transgenikoa horretarakoxe prestatua dago, glifosatoz bustiagatik, azido shikimikoa egiten jarraitzeko gai da. Orain negozioa bikoitza da: belar-hiltzailea eta hazi transgenikoa etxe berari erosi behar... Amerikako Estatu Batuetan soilik 2007. urtean, hor nonbait 95.000 tona herbizida saldu zuen.

Roundup izena du glifosatoa duen herbizidak, eta hondatzen ez dituen transgenikoei *Roundup Ready* (RR) izena jarri diete (soja, artoa, kotoia, garia, basartoa, alpapa...). Bertsoaren bat izango duten izen-asmatzaile, "Rounduperako prest" esan nahi du... Dakigunez, azeri-buztana (*Equisetum* sp.) da glifosatoak izorratzen ez duen landare bakanetakoa. Azeri-buztana, japonieraz *tsukushi*. ■



KENPEI-CC BY SA



Illicium anisatum. Azido shikimikoa landare honetan bakartu zen lehen aldiz.

%28 ortorexiadun

Makurkeriaren aroa bizi dugu. Txarra dena ontzat eta ona txartzat dugu. Ederra itsusi eta itsusia ederra. Osasungarria osasungaitza eta gaitza osasungarri. Balioak makurki irauli eta buruz behera, hankaz gora azaltzen zaizkigu...

Ortorexia ezagutzen al duzu? Zuzena edo egokia dena adierazten duen *orto* grekotik dator. Bada, ortorexia patologiatzat deskribatu zuen 1996an Bratman doktoreak: elikadura osasuntsua izateko joera zorrotza. Munduko Osasun Erakundeak dio: herrialde

aurreratuetan, %28 patologia horrek jota bizi omen gara. Ni ere hor sartzen naiz, eta nire ortorexia ortutik abiatzen da.

Gaitza ez da nekazaritza industrialak ekoiztutako mozkin pozoitsu hiltzaileak jatea. Osasuntsu jatea da arazo. Multinazionalen etorkizuneko negozio oparoen hankaz gora jartzen baitugu. Laster ortorexiako artatzeko psikiatria masterrak, tratamendu eroak, botika garestienak eta poliziarentzako protokoloak aterako dituzte. Denborak esango du. ■